

Etxeko transmisioa, euskararen indargune

Iñaki Iurrebaso



Argitaraldia 2023ko ekaina.

Copyrighth: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.

Koordinatzailea: Ander Gartzia Badiola.

Diseinua eta maketazioa: Concetta Probanza.

Aur kibi dea

- 4** Etxeko transmisioa,
euskararen indargune
IÑAKI IURREBASO
- 10** Euskararen belaunez belauneko jarraipena,
familia transmisioaz harago begira
PAULA KASARES
- 16** LEHA dispositiboa
EEP, EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA
- 20** Euskararen transmisioari lotutako
adierazleak EAS Euskararen Adierazle
Sisteman



Etxeko transmisioa, euskararen indargune



Iñaki Iurrebaso

Transmisioa, hizkuntza
gutxituen jarraipenerako
funtsezko prozesu



Komunitateko hizkuntza belaunaldi berriei transmititzea funtsezko prozesu gisa hartzen du soziolinguistikak aho batez Fishmanez geroztik. Hizkuntza gutxituen osasun-egoera eta horien heriotza-arriskua neurtzeko lantzen diren eskaletan ere oinarritzko alderditzat jo ohi da hizkuntza-transmisioarena: transmisioa gertatzen ez bada, belaunaldi berriek ez dute hizkuntza ikasiko, eta hori gertatzen denean, adineko pertsonak bakarrik erabiliko dute hizkuntza eta hiztun horiek zahartzearekin eta hiltzearekin batera hilko da hizkuntza gutxitua ere. Adituen arabera, hizkuntza-ordezkapenaren azken faseetan funtsezko mekanismoa dugu hizkuntzaren transmisioa etetea. Kinka horretan daude gaur egun munduko hizkuntza gutxitu gehienak; transmisioa etetea edo ahultzea ohikoa da egungo hizkuntza gutxituen artean.

Euskal guraso ugarik seme-alabei euskara EZ erakustea erabakitzen zutenekoa


Euskal Herrian ere, hizkuntza gutxituen joera nagusi horri jarraituta, transmisioan itogina izan du euskal komunitateak duela ez hainbeste arte. Mendeetako bazterketa-, jazarpen- eta gutxieste-prozesuen ondorioz, modernitatea eta aurrerabidea ustez erdararen eskutik zetozen garaietan, bizitzan aurrera egiteko hizkuntza baliagarritzat gaztelania/frantsesa jotzen zen eta euskara aurrerabiderako oztopo gisa ikusten; ikuspegi aski hedatua zen norbere hizkuntza arlotea zela uste izatea, baserritarrena, iraganekoa, bizitza berrirako balio ez zuena. Ikuspegi

eta sentipen horien eskutik, XIX. eta XX. mendeetan euskaldunen multzo aipagarri batek erabaki zuen eurek etxean jaso zuten euskara euren seme-alabei EZ erakustea, eta komunitateak ordura arte seme-alabak hazteko erabili zuen hizkuntzaren ordez, euskararen ordez alegia, gaztelania/frantsesa hautatzea. Jokabide horrek ingurune urbanoetan izan zuen batez ere garrantzia.

1. grafikoko datuek erakusten dute XX. mende hasieratik gutxienez¹ XX. mendeko 70eko hamarkada bitarte euskara gero eta gutxiago transmititu zela Hego Euskal Herriko etxeetan. 1906 inguruan jaio ziren haurren artean % 41,0koa izan zen euren le-

1. Ez dago atzerago joaterik Euskal Herrian ditugun datu estatistikoekin.

1. grafikoa. Haur txikien lehen hizkuntzan euskarak izan duen pisuaren bilakaera. Hego Euskal Herria, 1906-2021 (%)



Iturria: egileak landua, 1991-2021eko zentsuetatik abiatuta. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak azterlanetako mikrodatuen fitxategiak*, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak]

Oharrak: Urte bakoitzean aurkeztzen den ehunekoak zera adierazten du: urte horren inguruan Hego Euskal Herrian jaiotako haurren artean lehen hizkuntza gisa euskara jaso zutenen eta lehen hizkuntza gisa euskara eta gaztelania jaso zituztenen erdien batura. Argibide gehiagotarako, jo *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolingüistikazko tresna metodologikoak* garatzen. *Euskal Herrirako aplikazio praktikoa* laneko HZ-005 adierazlerra, 9.8.3. puntuan (<https://addi.ehu.es/handle/10810/60061>).

hen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua. Ehuneko hori erdia baino gehiago jaitsi zen 1971rako: urte horretan jaio zirenen artean, euskarak % 17,8ko pisua izan zuen lehen hizkuntzan². Iparralderako zentsuko daturik ez dugun arren, prozesu hori bera bizi izan zen, Hegoaldean baino are indartsuago gainera, XX. mendean zehar.

Azalpenetan luzatuko ez garen arren, 1. grafikoko datuen lehen irakurketa batek erakusten du ordezkapen-prozesu hori ez zela linealki gertatu aztertu dugun denbora-tarte osoan. Aitzitik, hainbat gorabehera argi antzematen dira prozesuan; epekatzeari erreparatuta, datuen lehen irakurketa batek iradokitzen du seme-alabei euskara erakusteko edo ez erakusteko guraso partikularrek hartu zituzten

milaka erabaki partikularrak historiaren gorabehera ekonomiko, politiko, militar eta kulturek estuki baldintzatuta hartu zituztela.

Gorabeherak gorabehera, euskara lehen hizkuntza zutenen ehunekoek atzera egin zuten hamarkadaz hamarkada XX. mendea dezente aurreratu arte. Argitu beharra dago, hala ere, une bakoitzeko euskal komunitate osoa aintzat hartuta, hizkuntzaren transmisioa etetea ez dela inoiz jokabide orokortua izan. Aitzitik, garai guztietan gehiago izan ziren hizkuntzari eustea erabakitzen zuten familiak transmisioa eteten zutenak baino. Horri esker gaude, besteak beste, bizirik. Dena den, gaztelania/frantsesa transmititzera pasatu ziren guraso euskaldunen multzoa ohargarria izan zen 1970 ingurura arte, eta transmisioan izan zen atzerakadak minorizazioan sakontzea ekarri zuen eta gure hizkuntza sozialki gero eta ahulagoa izatea. Galera-dinamika horrek bide beretik jarraitu izan balu hurrengo hamarkadetan, pentsa daiteke euskara belaunaldi berrietara transmititzen ez diren hizkuntzen multzoan sartuko zatekeela lehenik eta hitzunik gabe geldituko ziren hizkuntza hilen multzora ondoren.

2. Artikulu honetan aipatuko ditugun datuak *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolingüistikazko tresna metodologikoak* garatzen. *Euskal Herrirako aplikazio praktikoa* tesitik hartu ditugu (<https://addi.ehu.es/handle/10810/60061>). Jatorrizko iturriak honako hauek izan dira: EUSTAT eta NASTATen Biztanleria Zentsuak, Soziolingüistika Klusterraren Hizkuntzen Erabileraren Kale-neurketak eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Inkesta Soziolingüistikoak. Aipatu lanean aurki daiteke datu bakoitzaren iturri zehatza.

«Haurrei euskaraz!», 1960-70eko hamarkadetako iraultza soziolinguistikoa

Zorionez, baina, egoera irauli egin zen XX. mendeko 60-70 hamarkadetan. Garai horretan, eraldaketa soziopolitiko-kultural sakona bizi izan zuen Euskal Herriak. Eta euskal nazioaren aldarrikapen berregin eta berrindartu batekin batera, euskararen aldeko gizarte-mugimendu biziberritua sortu zen. Garai horretakoak ditugu euskara batuaren finkatzea, gerra ondoko ikastola gehienek sorrera, euskal kulturaren loraldia, eta abar. Testuinguru horretan, gizarteko sektore zabaletan euskal hizkuntzari ospea ematearekin batera, guraso euskaldunen artean seme-alabei euskara transmititzeko joera hedatu zen, datuek islatzen duten bezala, eta moteldu egin zen aurreko faseko joera, seme-alabei euskararik ez erakustearen aldekoa. 60ko hamarkada hasieratik ernatu zen euskaltzaletasun berriak arlo pribatuan sortu zuen emari gisa ulertu daiteke 1. grafikoko datuek 1976-1996 tarterako erakusten duten susperraldia; arlo sozialean ez ezik, arlo pribatuenean ere txertatu zen euskaltzaletasun berrindartuaren emari gisa. Guraso euskaldunek gero eta gehiagotan euskara aukeratzen zuten etxean haurrekin mintzatzeko, eta euskaldunak ez ziren guraso euskaltzale ugari ere batu zen bultzada horretara, eta eskolaren bidez euren seme-alabak euskalduntzearen aldeko apustua egin zuten.

70eko hamarkadatik aurrera euskara ondorengo belaunaldiak transmititzearen aldeko joera nagusitzea eta aurretik zetorren ordezkapen-prozesua iraultzea gertaera soziolinguistiko erabakigarria izan zen XX. mendean. Urte horietako datuek erakusten dute, jatorrizko euskaldunek ez ezik, garai haietan euskaldundu ziren herritar ugari ere euren seme-alabei euskara transmititzeko erabakia hartu zutela.

Masa-mugimendu euskaltzale ohargarria izan zen, bilakaera-datuek erakusten duten bezala, eta ordua arte euskara bizirik mantendu izan zen zonaldeetan ez ezik, erdara nagusi zen lurraldeetan ere sumatu zen indarberritze-joera hori, baita ingurune urbanoenetan ere. Tankera horretako susperraldia ez dirudi gertaera arrunta denik hiztun-komunitate gutxituetan. Aurreko fasea etetea ez ezik, euskaldunen eta euskaltzaleen eremu sozialean belaunaldi berriekiko transmisioan logika eta arau sozial berriak ezartzea ere ekarri zuen fase berriak. Pentsa daiteke garai hartan errotuko zela euskaldunek seme-alabei euskaraz egin behar dietelako arau sozial idatzi gabea, egun ere indarrean dagoena.

Joera-aldaketa gertatu ondoren gurasoen artean ageri den jokabideak ez du zerikusirik aurreko hamarkadetakoarekin. XX. mendeko lehen bi herenetan, ingurune urbanoetako guraso euskaldun ugari, askotan baita erdaraz gaizki moldatzen zirenek ere, ahalegin bereziak egiten zituzten seme-alabak erdaldun hazteko. Joera irauli ondoren, berriz, eta baita gaur egun ere, guraso euskaldunak —erdaraz hobeto moldatzen direnak horietako asko— seme-alabak euskaraz hazten saiatzen dira. Egoera irauli egin da. Ordezkatze-joeraren portaera prototipikoa da XIX. mende bukaeran eta XX. mendearen bi lehen herenetan ageri dena, non guraso askok erabaki zuten euskara ez transmititzea. Aldiz, indarberritu nahi duen komunitate bati dagokion portara da, bizirik jarraitu nahi duen komunitate batena, egungo guraso euskaldun gehienek erakusten dutena. Orduko errealitatearen eta oraingoaren artean gertatu den iraulketa funtsezko gertaera izan da gure historia soziolinguistikoa.


Iturria: egileak landua, EAEko 2021eko eta Nafarroa Garaiko 2011ko zentsuetatik abiatuta. [Jatorrizko iturriak: EUSTAT eta NASTAT]

Gaur egungo egoera (I): etxeko transmisioan ere erdara da nagusi

Nola gertatzen ari dira egungo transmisio-prozesuak? Haurren lehen hizkuntzari buruzko datu eguneratuena ekarrita (ikus 2. grafikoa), 2021ean Hegoaldeko³ 5 eta 9 urte bitarteko haurren artean %17,4k euskara izan zuten lehen hizkuntza eta %60,4k gaztelania. Horretaz gain, haurren %16,3k euskara eta gaztelania, biak izan zituzten lehen hizkuntza, eta gainerako %5,1k euskara eta gaztelania ez beste hizkuntzaren bat. Horiexek datuak. Lehen irakurketa: transmisioaren alorrean ere, euskararen egoeraren berri ematen diguten gainerako alderdietan bezala, handia da gaztelaniaren nagusitasuna, eta txikia, erlatiboki, euskarak hartzen duen pisua. Etxeko transmisioan erdararen nagusitasuna argi erakusten duten ehuneko horiei, gainera, ñabardura kualitatiboagoak erantsi behar zaizkie: guraso euskaldunen egungo profila zein den ezagututa (gehienek erdaraz errazago egiten dute euskaraz baino) eta euretariko ez gutxiren praktika nolakoa den jakinda (seme-alabekin euskaraz baina gainerakoekin askotan erdaraz), pentsa daiteke transmisio hori bete-betea izatetik urruti egongo dela, transmititzen den hizkuntzaren abe-

3. Hegoaldeko datuak sortzeko, EAEko 2021eko zentsuetako datuak eta Nafarroa Garaiko 2011koak batu ditugu (ez dago datu berriagorik). Ipar Euskal Herrian egiten diren zentsuek ez dute hizkuntzari buruzko informaziorik biltzen.

2. grafikoa. 5-9 urteko haurren lehen hizkuntza. Hego Euskal Herria, 2021 (%)



rastasunari, adierazkortasunari eta erabilera-ohiturei dagokienez bederen⁴. Aipatu behar da, gainera, 1. grafikoa ikus daitekeen bezala, azken bi hamarkadotan eten egin dela haurren lehen hizkuntzan euskarak izan duen pisuan 1970eko hamarkadatik zetorren hazkunde-joera. Lehen irakurketa horrek zera erakusten digu, hortaz: euskara ahul dagoela eta sozialki zabaltzeko zailtasunekin dabilela etxeko transmisioaren joko zelaian. Errealitatearen alderdi aipagarria jasotzen du ikuspegi horrek.

4. Hizkuntzaren jarraipen-prozesuan arrakasta gertatzeko, bestalde, familiarena ez ezik, gainerako eragile sozializatzaileen eragina ere aintzat hartu beharko da. Labur labur, esan dezakegu gaur egun eskolak belaunaldi berrien euskalduntzearen alde bultzatzen duela (EAEko eta Nafarroa iparraldean behintzat). Kontrako norabidean, hamar haurretatik bederatzi erdara nagusi den udalerrietan bizi dira, eta kalean zein lagunartean erdara gehiago jasoko dute euskara baino. Eta hedabideen, kultur kontsumoaren, teknologia berrien eta sare sozialen munduak ere gure haur eta gazteen erdarazko sozializazioaren alde eragingo du. Askotariko eragin gurutzatua izango dute, hortaz, eragile sozializatzaileek belaunaldi berriengan.

Gaur egungo egoera (II): gurasoen lehen hizkuntza eta gaitasuna aintzat hartuta, asko transmititzen da euskara etxean; minorizazio gorriaren testuinguruan indargunea da transmisioarena.

Bigarren irakurketa osagarri batean, ordea, datu horiek belaunaldi arteko perspektiban aztertuta, ikuspegia aldatu egiten da. Labur esanda, egungo gurasoak euskara gehiago ari dira seme-alabei transmititzen eurek umetan jaso zutena baino. Guraso euskaldunek seme-alabekiko dituzten erabilera-ohiturak xeheago aztertuta, gainera, euskararen indarberitzearen alde doan fenomeno islatzen dute datuek: euskaraz erdaraz baino errazago edo bietan berdin moldatzen diren gurasoek ia erabat egiten dute euskaraz seme-alabekin. Eta erdaraz hobeto moldatzen direnen artean ere asko dira, euskaltzetasuna erosotasunaren gainetik jarrita, seme-alabekin euskara hutsean aritzen direnak edo euskarari tarte handia eskaintzen diotenak. Irudi luke, soziolinguistikako teorikoez transmisioari ematen dioten garrantzi estrategikoaz jakitun balira bezala, euskal gurasoek prozesu horretan jartzen dituztela bereziki euren indarrak.

Portaera hori indargune argia da gure errealitate soziolinguistikoan, eta euskaldunon kasua ez da oso arrunta munduko hizkuntza gutxituen artean. Transmisioarena gure panorama soziolinguistiko orokorrean indargune argia dela diogu, etxeko transmisioan euskarak duen pisuak (% 17) nabarmen gaintzen dituelako bai egungo erabilera orokorra (% 12,6ko erabilera 2021. urtean Euskal Herri osoko

kaleetan) eta baita hizkuntza-gaitasunean euskarak erdaren aurrean duen pisuak erakusten digun ehunekoa ere (hiztunen % 7,4k dute gaitasunean euskarara nagusitasunezko hizkuntza⁵). Euskarak bizi duen minorizazio gorriko testuinguru orokorrean, beraz, indargunea da etxeko transmisioa.

Belaunaldi arteko perspektiban transmisio-prozesuek hizkuntza gutxituaren alde egitea, bestalde, salbuespena da nazioartean, hasieran aipatu dugun bezala. Ildo horretan, eskuratu ahal izan ditugun nazioarteko erreferentziei jaramon eginda, eta gure hizkuntza-komunitatearen neurria aintzat hartuta, euskara asko transmititzen da gainerako hizkuntza gutxituekin alderatuta. Eta esan dezakegu hizkuntza gutxituen gainerako komunitate gehienetako gurasoen bulkada baino dezente sendoagoa dela guraso euskaldunek euren hizkuntza gutxitua transmititzeko erakusten dutena. Funtsezko alderdia da horrako hori etorkizunari begira.

Laburtuz, bada, hizkuntza gutxituetan ohikoa den bezala, euskara gero eta gutxiago transmitituz joan zen gurean 1960-70 inguruan joera irauli zen arte. Orduz geroztik, euskal guraso gehienak seme-alabei euskara transmititzen saiatzen dira. Joera hori indargune garrantzitsua da gure egungo minorizazio gorriko egoera soziolinguistikoan, eta errealitate ez oso ohikoa munduko hizkuntza gutxituen artean. ★

5. Horixe da, 2016ko Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoko datuen arabera, euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen diren hiztunen ehunekoa.



Euskararen belaunez belauneko jarraipena, familia transmisioaz harago begira



Paula Kasares

Euskararen ondorengoenganatzean eta hizkuntzari iraunaraztean familiak duen egitekoari baitezpadako iritzi diote euskalariak historikoki eta, 1970eko hamarkadan Euskal Soziolinguistika

eratu zenetik, ikertzaileak ere bat etorri dira balioespen horretan. Halere, berriki arte, arlo akademikoan ez zaio euskararen transmisioaren gaiari arreta berezirik eman.



Euskararen gizaldiz gizaldiko jarraipena batik bat metodologia soziologikoaz egindako ikerketa eskala handikoen (makroen) eta kuantitatiboen bidez aztertu da. Azterlan horiek zentsu-errol-detako edo inkestetako datu estatistikoetan oinarritu dira eta guraso euskaldunek seme-alabei euskaraz egitean izan duten portaera itxuratzeko datu kuantitatiboak ematera jo dute. Datu horiek aldagai batzuekin (gurasoen tipologia soziolinguistikoarekin edo bizitokiarekin) gurutzatu dituzte baina, oro har, haurrak euskaldun hazteari loturiko funtsezko alderdien (arrazioen, motibazioen, elkarreraginen...) gainean ez dute argirik eman. Azterlan aitzindaria 1986an Iñaki Larrañaga SIADEC0ko soziologoak egindakoa da¹ eta, harez geroztik, euskararen transmisioaren datu kuantitatiboen jasotzea inkesta eta mapa soziolinguistikoe-tan sistematizatu da.

Azterbide makro-kuantitatiboaren beste aldean metodologia mikro-kualitatiboa dago. Ikermolde horretan, antropologoen eta metodologia antropologikoari darraizkion hizkuntzalariek —soziologoen ez bezala— azterketa eta teknika etnografikoak erabili dituzte. Aztergai zituzten komunitateetan denbora luzez bizi izan dira eta informazioa eskuratzeko

bide nagusiak berriemaileak elkarriketatzea eta hiztunen ohiko jokaerari behatzea izan dira. Ikerketa teknika etnografiko horiek hizkuntza atxikitze eta ordezkatzeko prozesuak arakatzeko biziki egokitzat jo badira ere, Euskal Soziolinguistikan azterlan mikro-kualitatiboak urriak izan dira. Ikusmolde kualitatiboa estreinako aldiz erabili zuten lanak Jose M.^a Sánchez Carrionenak ditugu². Azken urteotan, eta euskararen transmisioa bete-beteaz aztergai harturik, ikerketa kualitatibo batzuk (Jone Miren Hernández eta Paula Kasares antropologoenak, batik bat³) soziolinguistika tradizionaletik kritikoki alendu dira, zenbait kontzeptu zurrun (ama hizkuntza edo euskaldun berri / zahar dikotomia, esaterako) gaitzetsiz eta euskararen transmisioa ahalbideetzen duten alderdietarako beste ikuspegi bat hobetsiz. Egile horien azterlanak hiztunen bizi ibilbideetan nahiz hizkuntzekin gauzatu dituzten harremanetan eta, finean, haurren hizkuntza sozializazio baldintzetan barnatzen dira.

1. LARRAÑAGA, I. (1986). *La situación del euskera en el ámbito familiar: investigaciones realizadas y en proyecto en relación con la transmisión familiar del euskera*. San Sebastián: Siadeco.

2. SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M.^a (1972). *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo*. Pamplona: Institución Príncipe de Viana, Diputación Foral de Navarra; eta (1981). *La Navarra Cantábrica (Malda-Erreka). Estudio Antropolingüístico de una Comunidad Euskaldun*. FLV 37, 19-99.

3. HERNÁNDEZ, J. M. (2007). *Euskara, comunidad e identidad. Elementos de transmisión, elementos de transgresión*. Madrid: Ministerio de Cultura.


KASARES, P. (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Euskararen transmisioa lantzeko molde tradizionalaz, gogoeta kritikoa

Euskararen transmisioa Euskal Soziolinguistikan nola aztertu den oharturik, kezka horren gainean eratu diren ikerlanen ikusmolde ohikoaren joerez (eta gabeziez) jabetu gara (Kasares, 2014):

- a. Ikerketak *transmisio* kontzeptuan, batik bat, oinarritu ohi dira eta gurasoen-gandik seme-alabengana doan (hau da, goitik behera datorren eta noranzko bakarrekoa den) hizkuntza ematea baizik ez dute izan ardatz. Orobat, ikerlanek lehen hizkuntzari eta hura ikasteko garaia, umezaroari, baizik ez ohi diote begiratu, euskara lehen hizkuntza ez duten hiztunen bizi bilakaerei erreparatu gabe.
- b. Ikerketek hizkuntzaren bi transmisio mota (lehenik gertatzen dena, naturala, informala, familia bidezkoa; eta bigarrenik heldu dena, kulturala, formala, eskolak bermatzen duena) bereizi dituzte eta biak bereiz aztertu ere, bi transmiobideen arteko elkarreaginean barrendu gabe. Halere, etxeko, eskolako nahiz plazako elkarrekintzak ez dira hizkuntza jarduera bereziak; aitzitik, haurtzaroko hizkuntza sozializazioaren prozesu zabalagoan txertatzen dira, batera jokatzeko dute eta elkarreaginean daude.
- c. Azterlanek ikergunea etxera edo familia mugatu dute eta erabilera eremu hori besteetatik (ingurune edo eskolako harremanetatik, kasu) isolaturik arakatu. Aitzitik, haurrak hiztun bilakatzeko prozesua orohartzailea da, eragile anitzekoa. Familiari soilik begiratzeak ez digu haurrak hiztun bilakatzeko gako sorta osoa ematen. Gurasoek hizkuntza transmititzeko edo ez transmititzeko arrazoi nahiz aukera guztiak ez daude familiaren barnean. Familiatik atera eta hurbileko erkidegoari, gizarte sareei eta hizkuntzaren egoerari ohartzea ezinbestekoa da.
- d. Ikerketek datu makro-kuantitatiboak ez ohi dituzte hurbilpen mikro-kualitatiboen bidez eskuratutako informazioaz osatu. Hau da, euskararen gizaldiz





gizaldiko transmisioaren gaineko ikerlanetan aztermolde kuantitatiboa eta kualitatiboa bereizirik joan izan dira, ez uztarturik. Gurean inketetako eta zentsu-erroldeko datu estatistikoaren aldean azterketa kualitatiboak bakanak dira baina, alde handiz, sakonenak, aztermolde etnografikoaren bidez egindakoak batik bat.

- e. Ikerketek gurasoen euskara ezagutza irizpide nagusitzat (eta maiz bakartzat) jo dute eta azterketa guraso euskaldun bat bederen duten familietara mugatu. Bestalde, ikerketek gurasoen hizkuntza gaitasuna ezaugarri estatistikotzat hartu ohi dute eta umekiko harremanek gurasoei sortzen dizkieten hizkuntza bizipen berriez ez dira ohartu.
- f. Ikerketek aita-amen (eta orokorki helduen) mintzaira portaerak baizik ez dituzte kontuan hartu, haurren egintzailetasuna edo agentzia, bai eta haurren arteko eraginak ere, azterketatik kanpo utzirik. Horrek euskararen trans-

misioaren ikuspegi ohikoan umeak helduek transmititutako hizkuntzaren eta ideologiaren hartzaile pasibotzat hartu direla salatzen du, haurrak euskararen belaunez belauneko segidan hizkuntzaren jasotzaile hutsak baino gehiago eragile eta eraldatzaileak direla ohartu gabe. Hizkuntza transmisioaren gaineko ikerketek ez ohi dituzte haurren arteko eraginak behar bezala balioetsi, soziolinguistikan kontu jakina bada ere, ingurune eleaniztunetako haurrek gurasoen mintzamoldera baino gehiago beren adinkideen mintzaerara egokitze joera izaten dutela. Beraz, aztertu den euskararen transmisioa *belaun arteko (intergeneracional)* hutsa izan da, *belaun barnekoa (intrageneracional)* ere izan daitekeela susmatu gabe.

Hala bada, Euskal Soziolinguistikan erabili den transmisioaren ideia hori dagoeneko pitzatzen hasia da, hiztun komunitateak dituen ezaugarriak azaltzeko eta haren beharrei erantzuteko egokia ez delakoan.

Euskararen transmisioak, familia transmisioaz harago

Sozializazio prozesuan haurrek beren inguruan mintzatzen den hizkuntza (bat bederen) ikasten dute gurasoekin, familiako beste kideekin eta hurbileko komunitatearekin dituzten harremanetan. Haurrak inguruak ahalbidetzen dion adina hizkuntza ikasiko du, betiere mintzaira haiekin aski harremana badu; hau da, hizkuntza horietan gauzatzen diren komunikazioetan parte-hartzeko aukera nahikoa bermatzen bazaio. Hala bada, handi-handika, hizkuntzaren ondorengoenganatzea gizarteak edo komunitateak egiten duen transmisio baten ondorioa da, gizarteak ahalbidetzen dion komunikazio elkarrekintza orok bide emanen baitio haurrari hiztun taldeko kide bilakatzeko.

Haurrak hizkuntza komunitateko kide bilakatzeko prozesu hori hizkuntzen jarraipenaren harroina dela onarturik, nago transmisio adigaiak ezal-tzen diren gertakari desberdinak bereiztea biziki komenigarria zaigula. Gure artean *euskararen transmisio* kontzeptua hizkuntzaren jarraipenaren inguruko hiru gertakari oso desberdin adierazteko erabili ohi da:



- *Familia bidezko hizkuntza transmisioa*, familiak berma dezakeena batik bat gurasoek seme-ala-bei hizkuntza(k) irakastean. Etxeko belaunaldien arteko harremanetan gertatzen ohi da eta transmititzaile nagusiak gurasoak badira ere, horiekin batera etxeko beste helduek ere jokatzen dute. Transmisio horrek mintzaira ama edo lehen hizkuntzatzat ematea du helburu eta hori hala gerta dadin, gurasoen (eta etxeko besteen) hizkuntza gaitasuna ezinbesteko baldintza da.
- *Hizkuntza transmisio soziala edo komunitarioa*, belaunaldi bateko haur jendea hiztun bilakatzeko bidean mintzairaz jabetu, hizkuntza beretu eta hiztun taldeko kide izatera iristeko prozesuan gauzatzen dena. Hitztunaren bilakaera horretan familiaz harago gizarte harremanek eta erakundeek ere jokatzen dute (auzo-komunitate hurbileko harreman sareek, eskolak eta hezkuntza arloko bestelako erakundeek, aisialdiak...). Beraz, hizkuntza transmisio soziala gizarteak (familia barne) bermatzen du belaunaldien arteko nahiz haur belaunkideen arteko elkarrekintzetan. Hizkuntza transmisio sozialaren xedea haurrak (mintzaira hori ama hizkuntza izan ala ez) komunikazio gaitasun egokia eskuratzea da; hots, taldean komunikatiboki eraginkortasunez jokatzen duen hiztun bilakatzea. Hala bada, gurasoen hizkuntza gaitasuna ez da abiapun-

tuko baldintza, nahiz haurra hiztun bilakatzeko bidean familiari egiteko garrantzitsua aitortu. Prozesu hori *hizkuntza sozializazioaren* ikerketa arloan aztertu da (Kasares, 2014).

- *Hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa*, hau da, mintzairak denboran irautea; hiztun taldeak atxikirik, hizkuntzak belaunik belauneko segida izatea edo jarraitzea.

Beraz, transmisio bakarra baino gehiago, transmisio desberdinak dira eta argi bereiztea komeni da. Izan ere, euskara belaunaldi berriei transmititzea eta euskara lehen hizkuntzatzat transmititzea ez dira gauza bera. Euskararen familia bidezko transmisioa aztertzeak zentzu eta interes osoa du, baina euskararen transmisioarekiko kezka familialtik baino harago ere jo behar du, transmisio sozial edo komunitarioaren adieran. Hori eginik, euskaraz ez dakiten gurasoek osatutako familiak, hala bertakoak nola atzerititik etorriak ere hartu ahal izango ditugu.

Beste aldetik, ama hizkuntza sendo transmititzea ez da familia transmisioa, harago doa, prozesu orohar-tzailea (holistikoa) da eta komunikazioa mamitzen den gizarte arlo guztiak barne biltzen ditu. Euskaldun hazteko haurrek euskaraz aditzeko eta aritzeko aukera kuantitatiboki nahikoak, ohikoak, eta kualitatiboki askotarikoak, ez etxera eta ez eskolara soilik mugatuak, behar dituzte. ★

LEHA dispositiboa

Leha («Lehen haurtzaroaren euskarazko harrera») harrera elebiduna eskaintzen duten haurtzaindegien labelizatze dispositibo bat da. Bost partaidek elkarlanean eramaten dute dispositibo hori: Familien Laguntza Kutxak (FaLK), Pirinio Atlantikoetako departamenduak, Nekazaritzako mutualitate sozialak, Euskal Hirigune Elkargoak eta Euskararen Erakunde Publikoak.



EEP. Euskararen Erakunde Publikoa

Harrera elebiduna edo osoki euskaraz eskaini nahi duten haurtzaindegietako zuzendariek 3 harrera linguistiko ereduen artean hautua egin dezakete, aldi berean haurraren ongizatea eta hizkuntzaren transmisioa errazteko gisan.

A
eredua

Haurra ingurumen elebidun batean ibilki da. Langileak euskaraz ala frantsesez ari zaizkio, burasoen hautuaren arabera.



B
eredua

Ingurumen euskaldunean ibilki da haurra eta harremanak osoki euskaraz egiten dira.

C
eredua

Ingurumen elebidunean ibilki da haurra, eta langileen erdia ari zaio euskaraz eta beste erdia frantsesez.

LEHA sarea 2023an



Ondorioak


Zer da Leha sarearen itxura, 12 urte hasi ondotik?

- Ipar Euskal Herriko 3 tokitatik 1 Leha sarearen parte da.
- 940 familiak harrera elebiduna edo euskaraz jasotzen dute.
- 10 urtez 50 haurtzainek euskarazko formakuntza jaso dute.

Etxean erabilitako hizkuntza


LEHA sareko egiturek gurasoek hizkuntza harrerarekiko dituzten behar eta itxaropenei erantzuten ote diete?

- Familia gehienek euskaraz edo elebidunean den harrera baten eskaintza nahi dute.
- Familiak zenbat eta euskaldunagoak izan (2 buraso euskaldun), orduan eta garrantzitsuagoa da euskarazko harreraren irizpidea.
- Euskarazko harrera edo harrera elebiduna ez da oztopo bat familientzat zaintza modu baten hautatzerakoan.



- Frantsesa
- Euskara
- Frantsesa + Euskara
- Frantsesa + Beste hizkuntza bat
- Euskara + Beste hizkuntza bat
- Beste hizkuntza bat



Burason euskara-gaitasuna



Noraino eragina du euskarazko harrera edo harrera elebiduna eskaintzen duen haurtzaindegi batean izateak euskararen transmisioan?

- Haur gehienak euskaldunak ez diren familietan murgilduak dira.
- Zaila da hizkuntzaren transmisioan duen eragina neurtzea, eta hainbat faktoreren araberakoa da. Gutxienez, euskarazko harrera edo harrera elebidunak hizkuntzaren ulertzea errazten du.
- Familien hiru laurdenak elebitan edo euskarazko eskolatzeko hautua egiten du. Kasik laurden batek dio Leha sareko haurtzaindegiko harrerak eragina izan zuela egindako eskolatzeko hautuan.

Bilakaera



Euskarazko harreraren eragina




940

Familia onuradunak

Lurraldeko haurtzaindegien

% 45




Haurtzaindegi tokien

% 37

Zenbatetaraino Leha dispositiboak lagundu ditu haurtzaindegiak euskarazko harrera edo harrera elebidun baten eskaintza garatzen?

- Euskarazko B1 mailaren muga, taldeetan hizkuntza erabiltzeko erronka, haurtzainei zuzendutako euskarazko formakuntza eskasa eta giza baliabide euskaldunen erronka dira harrera-eskaintza elebidun edo euskarazkoaren zailtasun nagusiak.
- Lantokia euskara praktika lekutat hartzeko aukera, euskaraz lan egitearen plazera eta eskaintza horrek familientzat eta txikientzat duen irekitasuna dira profesionalen ikuspuntutik onura nagusi batzuk.
- Iparraldeko egoera soziolinguistikoa kontutan hartuta, zenbait baldintzek, edo euskarazko harrera edo harrera elebidunaren antolatzea errazten dute, hala nola: gutxienez B1 maila baino handiagoko 2 pertsona izatea lan taldean, proiektua dinamizatzeaz arduratuko den pertsona baten identifikatzea, helduen arteko hizkuntza-praktiketarako guneak eta uneak pentsatzea.
- Laguntza-beharrak ez dira labelizazioaren ondotik gelditzen. Itzulpengintzan laguntzea, praktikak eta tresnak trukatzeko, familiei transmisioan laguntzeko tresnak eskuratzea indartu beharko diren hainbat sustengu-estrategia dira. Lanbideari lotutako formakuntza jarraikia euskaraz: horretan indarrak ematea agertu da beste erronka bat bezala. *

Eskolatze hautua (%)



- Euskarazko irakaskuntza murgiltzean
- Ama eskola euskaraz murgiltzean eta ondotik elebiduna
- Irakaskuntza elebiduna euskara/frantsesa
- Irakaskuntza elebakarra frantsesez
- Ez dakit
- Beste bat

*Txosten hau osatzeko, guztira 410 familik eman dute haien iritzia, 12 elkarrizketa osatu dira zuzendaritzekin, eta 5 lantaldek haien esperientziak partekatu dituzte.


Euskararen transmisioari lotutako adierazleak EAS Euskararen Adierazle Sisteman

Inkesta Soziolinguistikoak eta EAEko eta Nafarroako Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuek beren-beregi lantzen dituzte euskararen transmisioaren esparruari lotutako datuak. Horietatik elikatuta, EASEk hainbat adierazle ditu jasota bere webgunean. Hurrengo orrialdeetan dituzun zazpi grafikoetako datuak dira horren lekuko.

1.

Lehen hizkuntza* (≥ 16 urte)

Euskal Herria, 2021 (%)



*Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik etxean jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

2.




Lehen hizkuntzaren (≥ 16 urte) bilakaera

Euskal Herria, 1991-2021 (%)

Euskara

Biak

Erdara



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa

Informazio osatua EASen:


[https://www.euskadi.eus/eusadierazle/
PXWeb/pxweb/eu/euskera/-/px24_e.px](https://www.euskadi.eus/eusadierazle/PXWeb/pxweb/eu/euskera/-/px24_e.px)

3.


Lehen hizkuntza (≥ 16 urte) adinaren arabera eta sexuaren arabera

Euskal Herria, 2021 (%)


Guztira




Guztira




Emakumezkoa




Gizonezkoa




16-24 urte




25-34 urte




35-49 urte



50-64 urte



≥ 65 urte



Informazio osatua EASen:

https://www.euskadi.eus/eusadierazle/PXWeb/pxweb/eu/euskera/-/px25_e.px


Informazio osatua EASen:

https://www.euskadi.eus/eusadierazle/PXWeb/pxweb/eu/euskera/-/px26_e.px

4.

Lehen hizkuntza (≥ 5 urte)

EAE eta Nafarroa (%)



*Euskal Autonomia Erkidegoko datuak 2021ekoak dira eta Nafarroakoak 2011koak.
Iturria: EAEko eta Nafarroako Mapa Soziolinguistikoak

Informazio osatua EASen:

www.euskadi.eus/eas

Datu osagarriak:


datuak adinaren eta sexuaren arabera, eskualdeka eta udalerrika, eta gune soziolinguistikoka.

5.



Seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen euskara-gaitasunaren arabera

Euskal Herria, 2021 (%)


Euskal Herria




Euskal Autonomia Erkidegoa



Nafarroa



Iparralde



6.


3-15 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen euskara-gaitasunaren arabera

Euskal Herria, 2021 (%)


Euskal Herria




Euskal Autonomia Erkidegoa



Nafarroa



Iparraldea



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa

7.

3-15 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza guraso euskaldunen lehen hizkuntzaren arabera

Euskal Herria, 2021 (%)

Guraso biak euskaldunak.
Biek lehen hizkuntza euskara



% 96,0
Euskara

% 4,0 Biak

% 0,0
Erdara



% 86,0
Euskara

% 12,0 Biak

% 2,0
Erdara

Guraso biak euskaldunak.
Batak lehen hizkuntza euskara eta besteak erdara



% 37,0
Euskara

% 36,0 Biak

% 27,0
Erdara

Guraso biak euskaldunak.
Biek lehen hizkuntza erdara

Gurasoetako bat euskalduna.
Bere lehen hizkuntza euskara



% 82,0
Biak

% 18,0
Erdara



% 54,0
Biak

% 46,0
Erdara

Gurasoetako bat euskalduna.
Bere lehen hizkuntza erdara



HIRUKO ITUNA

Euskara sustatzeko ituna

3ko

